

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Solana kontseilaria "Jakin-mina" programako parte-hartzaileei egindako diploma-banaketako buru izan da

33 ikasleez gain, Jakiundeko, NUPeko, Nafarroako Unibertsitateko eta EIBZko ordezkariak ere izan dira ekitaldian

Asteartea, 2017.eko maiatzak 23

Maria Solana, Hezkuntzako kontseilaria, "Jakin-mina" programan parte hartu duten [Nafarroako 45 gazteetatik 33ri](#) diplomak banatzeko ekitaldiko buru izan da gaur goizean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan. Zikloa Jakiundek antolatu du eta 2016ko azaroaren 18tik 2017ko martxoaren 31ra bitartean Nafarroako Unibertsitatean Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat egindako bost hitzaldiz osatuta dago. Programaren seigarren edizioa da aurtengoan eta 2011. urtean abiatu zen. Solana kontseilaria izan da hitzaldi-zikloari amaiera eman diona, eta aldaketaren goinuari buruz hitz egin du.



Saridunak eta agintariak elkarrekin.

Solana kontseilariarekin batera, beste hauek ere bertaratu dira ekitaldira: Jesús M. Ugalde, Jakiundeko lehendakaria; Iciar Astiasarán, Nafarroako Unibertsitateko Ikerketako errektoreordea; Ramón Gonzalo, NUPeko Ikerketako errektoreordea; Yolanda Olasagarre, EIBZko zuzendaria eta Nafarroako Jakin-minako ohiko kolaboratzailea eta Jakeline Barker, Jakiundeko idazkaria. Horrez gain, diplomak jaso dituzten hogeita hamar ikasle baino gehiago ere izan dira.

"Jakin-mina" programaren helburua da akademikoki motibatuta dauden gazteen adimen-garapena eta garapen pertsonala azkartzea, adituek emandako hitzaldi eta erakustaldien diziplina anitzeko programa baten bidez. Hitzaldi horiek ikastetxetik kanpo ematen dira, unibertsitateetako edo ikerketa-zentroetako instalazioetan.



Solana kontseilaria bertaratutakoei hitz egiten.

Nafarroaren kasuan, hitzaldien zikloak Nafarroako Unibertsitate Publikoan

(NUP) eta Nafarroako Unibertsitatean ematen dira, txandaka. 2016/2017 ikasturtean azken horri egokitu zaio "Jakin-mina" programaren anfitrioi izatea.

Tronu Aretoan egindako ekitaldian zentro hauetatik etorritako 33 ikasle izan dira haien irakasleekin batera: Altsasuko Altsasu BHI, Etxarri-Aranatzeko Andra Mari Ikastola, Burlatako Askatasuna, Erredin, Iruñeko Eunate, Garralda Institutua, Iruñeko Liceo Monjardín, Atarrabiako Pedro de Atarrabia, San Fermin Ikastola, Berako Toki Ona eta Zizur.